

Ez gara gerraren zale...



Foto: Jesus Hospitaler

Ziur nago errenteriar gehienok ez gabela batere gerra-zale, eta horren ustetan idazten dut honako hau. Halaz ere gerratxo gehiegi dago gure artean. Irain, eraso, sufrimendu, haserre, gorroto eta ezinikusi gehiegi.

Bakearen maitale gara baina gure artean ez da behar bezalako bakerik. Tentsio eta tirabira gainezka, zenbaitetan harremanak eteteraino. Zerbait gertatzen zaio gizarte honi, oker gabiltza bakea eraikitzeke haserre bideak isteko gai ez garen neurrian.

Jakin badakigu gure arteko arazoa ez dela errenteriarrena bakarrik, beste herritar ere antzeko gorabeherak gertatzen direla, istiluak eta gatazkak nonahi hor daudela. Era berean, ordea, bistan da Errenteria aparta dela, nahiko ez genukeen sailkapen bateko buru gabela. Aspaldiko urteotan, aurrera egin ordez, sarritan atzera ere egin izan dugula nabarmenkiro.

Normala da bakoitzak bere pentsaera izatea, defendatzea, hizkuntzari, kulturari edota politikari dagokionez bakoitzak bereari eustea, hainbatetan lehiakide izatea. Besterik asmatzen ez den bitartean, arau demokratikoen bidez gehiengoaren esanetara egokitzea. Hitz joko batean bilduz, lehiakide ezezik leial-kide izatea.

Gure herrian bizi dugun giroak, ordea, besterik erakusten du. Hasi herriaren izenetik eta bere izanera egin beharreko bideaz, ez gara ados jartzen. Okerrrena dena, ez gara arazo hauek normaltasunez bideratzeko gauza izan. Bakeari buruz izan dezakegun iritzia nahiko desberdina izango da, seguraski. Batentzat bakea lortzeko ezinbesteko baldintza baino ez den hori trabarik nagusia da besterentzat.

Noiz arte jarraitu behar dugu horrela? Ez ote dugu gizarte hau beste era batera eraikitzeke modurik izango? Zein da gure ondorengoei utzi behar diegun herria? Gerrarik ezagutu ez genuenok ere bere ondorioak nozitu genituen. Geroztik gertatua, begi bistan da, hainbat familiak sufritzen du bere baitan. Guk ere beste horrenbeste egin behar al dugu?

Mikel Ugalde

Badira agian udalerrri eremuan bakarrik konpontzerik ez dauden arazoak, beste maila batean askatu beharreko korapiloak, besteak beste egoerak herri honen mugak gainditzen dituelako. Beste gai batzuk, ordea, herri mailan konpontzen ahalegindu beharrean izango gara. Herriaren izenarena, esaterako. Harremanak gozatzeko bideak ere guk geuk zabaldu beharko ditugu. Daramagun jokaerarekin ez goaz inora.

Hau guztia inozokeria dela, inuzentearena egitea dela, gehienez ere utopiaren munduan ibiltzea dela pentsa dezake norbaitek. Zer eginik ez dagoela errepikatuko du besteren batek erabat etsita. Agian horrela pentsatzeko eta sentitzeko arrazoiak izango dituelako, noski. Etsipena, haatik, bidelagun gaiztoa da, antzua, iturri agorra. Ez dugu etsitzeko lujorik. Horrexegatik hain zuzen, ahalegin serio bat egiteak merezi du.

Aurten Elkarriren eskutik, esaterako, Bilbon eginiko saioetan taldeak hitzegiteko gai izan dira, hitzegiteko eta entzuteko gai direla erakutsi dute eta herritar gehienek begi onez ikusi dute maila horretan egin den esperientzia gerora jarraipena izan dezakeen ustetan. Jakineko arazo batean aurrean bakoitzak pentsatzen duena esan du, baita entzun ere. Abiapuntu bat izan daiteke. Gure herrian elkarriz entzuteko ohitura gehiago izan bagenu beste kuku batek joko zukeen.

Gure artean bizi dugun tentsio eta krispazioa baretzeko, giroa gozatzeko, jarrerak hurbiltzeko, gatazkak normaltasunez bideratu ahal izateko, ahalegin serio bat egin beharko dugu denok. Gertatuak oro ez dira ahaztutzeak, baina iraganera begira gelditzeak ez dio etorkizunaren eraikuntzari batere onik egingo. Ezin ibiliko gara, bada, beti errua "bestearena" dela esanez, "besteak" borondaterik ez duela salatuz.

Ahalegin serioa egin behar da, nire ustez hasteko, alderdi politikoen artean. Elkarrigandik hurbilen egon daitezkeenetik hasita, komenigarria izango litzateke elkarren arteko harremanak normaltzeko, egungo ozpin eta mingostasuna arintzeko, inoiz etsaitzat jo izan den lankide izatera pausoa emanez, ahalik eta bide luzeena elkarrekin eginez. Ona izango litzateke alderdi bakoitzak puntu hau aztertzea eta bere jarrerak gizartearen ere tentsioa sortzen ote duen begiratzea. Mokoka jarduteak ez dio onik egiten ez herrigintzari ez herritarrei.

Herri mailan lanean diharduten elkarte eta mugimenduen zeregina oso aintzat hartzekoa izango litzateke, besteak beste, horretan asmatuz gero istiluak bakanduko lirakeelako. Harro eta entzungor sumatzen dituzte mugimendu hauek alderdi politikoa. Prepotente hitza noiznahi entzun daiteke herri elkartearen hitzetan. Alderdi politikoei, berriz, mugimendu eta elkartei zera leporatu

izan diete, politizazioa nabari dela, jakineko talde edo alderdiren esanetara jotzen dutela... Kontua da normalizatu beharreko gai bat badagoela hor.

Hizkuntzaren normalizazioaren zeregina ere hor dago gori-gori gurea bezalako egoera soziolinguistikoetan. Zein daiteke hizkuntz arazoari eman beharreko irtenbidea? Eskolaren bidez, besterik ez bada, elebidun pasibo izatera iristen ez den jendearekin bizi garen bitartean, bai al da euskara normaltasunez erabiltzeko egokierarik? Non gelditzen dira hizkuntz eskubideak? Non hizkuntza beraren normalkuntza?

Zein da gure herriaren izenaren inguruko gatazkari eman beharreko irtenbidea? Arazorik dagoenik ukatu? Gauzak bere horretan utzi? Ala gaiari zuzenean heldu eta adostasun bila elkartuz ahalik eta irtenbiderik egokiena eman?

Noiz arte jarraitu behar dugu guztia pinturaz txerri egiten? Nahikoa da dendari batek bere ilusio guztiarekin pertsiana garbitu, pintatu eta txukun-txukun uztea hurrengo egunean guztia zipiztindurik ikusteko. Hori ez da gizalegea. Hau ez da kanpotarren eraso, herrian bertan sortu eta landutako jarrerak dira. Zer egin gauza hauek guztiak aldarazteko?

Lehendabizi gauzak benetan aldatzeko erabakia hartu behar dugu maila guztietan. Alderdietan, elkarteetan, mugimenduetan serio aztertzeko gogoia beharrezkoa da. Aldatzeko erabakirik gabe gauzak ez dira bere onera ekarriko. Gai hau, bestalde, herri barruan bideratu beharrezkoa da. Gauzak lortzeko, era bateko zein besteko, indarra erabiltzea aski baldin bada, uste horretan jarraitzen badugu, gureak egin du.

Elkarrizketarako bideak zabaltzea, harremanak normaltzea, elkarri entzutea, bakoitzak bere zeregin eta erantzukizunaren arabera jotzea ezinbestekoak dira. Elkarrizketak alderdien artean, alderdi eta herri mugimenduen artean, elkarrizketak erakundeen eta herritarren artean... Elkarrizketak besteen arrazoiez jabetzeko, diagnostiko egokiak egiteko eta osabideak erabakitzen asmatzeko. Bake zaletasuna bide horretatik bakarrik mami daiteke, nire ustez.

Bada, honekin batera, kezkarazten nauen beste puntu bat. Gure artean hainbesteko tirabirak izanik, zernolako ondorioak izan ote ditzake honek haur eta gaztetxoek baita? Zenbateraino ondorengo belaunaldietan? Familietan eta kalean entzun, ikusi eta bizi duten horrek onik egiten al die?

Hezkuntzan ere, beharbada, kontuan izan beharreko gaia da honako hau. Askotan guk betetzen ez duguna eskolari eskatzeko tentazioa izan dezakegu. Eskolaren ahalmenak askok uste baino mugatuagoa da. Halaz ere, erreformaren inguruan emango diren pausoetan, hezkuntzaren ikuspegitik gizartearen eraikuntzari zor zaion tratamenduan, gure herriko eskolek ere, gizarteko gainontzeko indarrekin batera, ahalegin berezia egin behar luke. Bakearen alde arituko diren neska eta mutilak hezi behar ditu abiapuntua gatazka bera delarik. Gure herrian egoera berezia baldin bada, eskolaren jardunak ere berezia behar du. Herri mailako eskola kontseiluak bultzatuz dezakeen kontua da.

Laburbilduz, besteren batek Euskal Herri mailan gatazka konpontzeko elkarrizketarako mahaiak martxan jartzea komenigarritzat jotzen duen antzera, hemen ere ona izango litzateke:

– Alderdi politikoen arteko mahaiak sortzea arazoak normaltasunez bideratzen eta konpontzen ahalegintzeko.

– Herriko elkarte eta mugimenduan arteko mahairen batzuk sortea, talde hauen egiteko gizarte zehazteko, erakundeekiko solaskidetzatziurtatzeko gizarte demokratiko batean dagozkien funtzioak bete ditzaten.

– Ona izango litzateke hezkuntzaren erreforma tarteko, herri mailan dagoen giroa kontutan hartuz hezibideari dagokion erantzuna egokia izan dadin ahalegin bat egitea.

– Komenigarria izango litzateke, esku artean dauzkagun hainbat korapilo elkarrizketaren bidez askatzen saiatzea, eta horretarako berariazko mahaiak sortzea.

Izan ere, ez gara gerraren zale... baina...



Foto: Xesus Hospitaler